

PATXI ZABALETA
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

(Leitza, 1987-X-25)

PATXI ZABALETA EUSKALTZAIN BERRIA

Leitza, 1987-X-25

*Juan Oronoz Zabaleta,
Leitzako Alkatea*

Jaun andreak egun on eta ongi etorri bero bat denori eta bereziki Euskaltzaindikoko bazkide guztioi, gaur ospatzen dugun ekitaldi honetara.

Egun haundia da gaurkoa Leitzako herriarentzat, zeren bertako seme ospetsu batek gaur hemen eginen duen sarrera —hitzaldiarekin emanen du aurreneko pausoa Euskaltzain bezela—.

Oso gazteganetik jo zuen herritik kanpora, kultura eta Euskal Herriko askatasunaren bila. Beronen ibilialdia luzea eta kementsua izandu da eta horrengatik Patxi Zabaleta, Euskaltzain berriaren izena oso ezaguna da Euskal Herrian orain baino lehenagotik.

Zorionez edo zoritxarrez badago zer egina gaur egun Euskadi mailan dagoen egoera soziala eta instituzionala normalitate batera iritsi arte eta hontaz hain zuzen hitzeginen du Patxi Zabaletak bere azalpenean.

Gure hizkuntza urte askotako represioaren bitartez leku askotan desagertua izandu da, eta euskarari eutsiaz aurrera jarraitu dugun lekue-tan, modu askotara izandu gara marginatuak.

Hizkuntza bat biziko bada gaur egun, behar beharrezkoa da hobea-gotzen eta gaurkotzen joatera, egunetik egunera zainduaz.

Lan garrantzitsu honen arduradun, Euskal Herri mailan, Euskaltzain-dia da. Eta badakigu gure hizkuntza ez dagoela esku txarretan.

Baino kontutan eduki beharra dago euskera babestu eta indartzeko euskaldun guztion indarra behar dugula, eta euskaraz hitzeginaz bizi gainera.

Helburu hori lortzeko irakaskintza beharrezko oinarria da. Eta euskal irakaskintzan ez dago Ikastolak aldebatera uzterik, zeren herriko iniziatiba-ren bitartez sortuak izandu dira, eta ezinbesteko lan garrantzitsua egiten jarraitzen dute oraindik eta jarraitu beharko dute geroago ere, ahalik eta Nafarroako Gobernuak beren nortasuna aintzakotzat harturik,



irakaskintza sailean Ikastolari orokortasunezko irtenbide bat bilatzen ez duen artean.

Zoritxarrez, Nafarroako Ikastolak eraso baten azpian jaio ziren, eta gaur egun batez ere Ikastola txikiak ez dira egoera hobegoan aurkitzen. Ikastola hauen aurka azken urte hauetan eraso gogorak izandu dira, eta nahita nahiezkoa da herrialde honetako Aldundian jokaera aldatzea eta jartzen ari diren oztopoak eta eragozpenak alde batera utzirik, finantziabide aldetik tratamendu berdina ematera estatal eskolari eta Ikastolari, hauen izakera berezia errespetatuz.

Bukatzeko bihotz bihotzez opa diogu Patxi Zabaleta, Euskaltzain berriari eta Euskaltzaindia osoari, bakoitzak planteatu dituen helburu guztiak lortzeko bidea izan dezala, etorkizun on bat euskerari eman diezaion.

Agur eta zorionak bereziki Patxiri.

**PATXI ZABALETA JAUNAREN
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Leitza, 1987-X-25

Fr. Luis Villasante

EUSKALTZAINBURUAREN HITZAK

Juan Oronoz, Leitzako alkate jaun agurgarria
Guillermo Herrero, Hezkuntza eta Kulturako Zuzendari jauna
Xabier Chorraut, Iruñeko Alkate jauna

Euskaltzaindiko jaunak:

Leitzarrak, eta Euskaltzaindiak gaur Leitzan egiten duen batzarre ospetsu honetan parte hartzera etorri zareten guztiak:

Egun on denoi!

Euskaltzaindiak Leitzan egiten du gaur batzarrea “académico” edo euskaltzain berri baten sarrera ospatuz. Herriko seme baten sarrera ospatuz, alegia.

Egun pozgarria Leitzako herriarentzat, bertako seme den Patxi Zabaleta jauna gaugeroztik Akademiaren partaide aitortua gelditzen baita.

Ez nuke neure hitzetan luze egon nahi. Zerbait esatea dagokit, ordea, euskaltzain berriaren lan eta merezimenduei buruz. Euskal olerkari, idazle, itzultzaile eta irakasle dugu Patxi Zabaleta jauna. “Arturo Campión” akademiaren sortzaileetatikoa. Baditu bi olerki-liburu: *Zoriontasun baten zainak* eta *Ezten gorriak*. Elaberri bat ere bai: *Euskomunia ala Zoroastroren artalde*. Tesina gisako beste lan bat oraino: “Sobre la estructura del euskara”. “Radio Requeté”n hitz egin izan du eta aldizkari askotan parte hartu, hala nola *Egin*, *Anaitasuna*, *Principe de Viana* orriko “Arnas Berri” sailean, etab.

Ez dator, bada, esku hutsik Euskaltzaindira, gazte izanarren, euskaltzain berria. Gainera, ez dut aipatu gabe utzi nahi lege gizon eta gizarte-gizona dugula Patxi jauna, eta egintza askotan sartua.

Patxi Zabaleta jauna Aita Damaso Intzaren ondorengoa dugu Euskaltzaindian. Aita Intza, berriz, Akademiaren lehen aroko euskaltzaina genuen. Ehun urteak betetzera zihoanean itzali zitzaigun, euskararen alde hainbat lan egin ondoren. Nafarra zen, noski, Patxi Zabaleta jauna nafarra den bezala. Bai. Gure Akademiak badu bere Arautegian lege hori, hots: Euskaltzaindian, ahal dela, egon daitezela euskararen euskalki guztietako ordezkariak. Zergatik duen lege hau Euskaltzaindiak, ez da zail asmatzen. Euskaltzaindiak nahi du Euskal Herri guztia bere osoan hartu, euskararen aberastasun eta bereizgarri nabarrak hobekiago ezagutu eta kontutan hartzeko. Ez du nahi Euskaltzaindiak eskualde bateko euskalkia denen gain jarri eta besteak baztertu. Aitzitik, Euskaltzaindiak nahi du denekin moldatutako euskara-mota bat aurrera atera eta aitzinatu. Eta agerian da, bai euskara bere osotasunean ezagutzeko, eta bai euskararen batasuna egiteko ere, euskaltzainak eskualde desberdinetakoak izateak zer-nolako garrantzia izan dezakeen.

Eta zilegi izan bekit Leitza egindako Euskaltzaindiaren beste batzarrere ospetsu bat gogoratzea. Badira 30 urte. 1958ko gabon aurreko egunetan zen. Orduan ere Euskaltzaindia Leitza etorri zen, noren eta Orixeren Euskaltzaindian sartzea ospatzera. Eta hain zuzen, Orixeren hitzaldiari erantzun ziona, orain galdu dugun Mitxelena jaun hizkuntzalari jakintsua izan zen.

Orain, bada, bigarrenez eta arrazoi berberetatik, hots, euskaltzain berri baten sarrera ospatzeko, etorri da Euskaltzaindia Leitza.

Eta maiz aho-mihitan hartu dudana gaia baldin bada ere, zilegi izango ahal zait betiko galdea egitea eta galde horri erantzun ematea! "Zer nahi ote du edo zeren bila ote dabil Euskaltzaindia, euskararen Akademia?"

Galde honi behin eta berriz erantzutea behar-beharrezko dela iruditzen zait, zeren Euskaltzaindiaren xede eta helburuak ez baitira beti ongi hartuak edo ulertuak izaten. Behar da, bada, gauza bera behin eta berriz errepikatu.

Hemen Nafarroan zen, eta oraindik denbora asko ez dela. Emakume batek, bere xalotasun eta zintzotasun guztiarekin, hauxe esan zidan: "Zer zabilzate zuek euskarakin? Utz zazute baketan euskara!"

Berehala etorri zitzaidan gogora Sebero Altubek kontatzen diguna (1). Berari ere bere aitabixiak guti gorabehera gauza bera esan omen

(1) Ikus *Eusko Jakintza*. (1949), 185.

zion: “Etxatak gustetan, eskuera gora ta eskuera berako zerok; karlistak pe olaxe asi zittuan gerria gertaketan ziarduenian, eta ara zer ekarri uskuen, Eskualerri guztia galdu ta ondatu. Eskueria bizikok olako zer bare pe, oiñ arte bizi izan dan lez”.

Bai, hala balira gauzak, gaitzerdi. Baina guk aurreko gizaldietatik hartu dugun ondasun hau, hura atxikitzeke eta salbatzeke ezertxo egin gabe, berez bizirik aterako dela gaurko kinka honetan, mende berriko egoera guttiz berezi eta nahasi honetan, ezin sinetsia da.

Eta, hain zuzen, horretarakoxe sortua da Euskaltzaindia: euskaldunen mintzaira hau begiratzeko, lantzeko, sustatzeko eta bizirik ateratzeko. Euskaraganako ardura eta arrangura eraman nahi du, bada, Euskaltzaindiak euskaldunen bihotzetara.

Eta kasu honi! Herri baten ondasuna da euskara. Eta horrexegatik, hain zuzen, Euskaltzaindiak ez du nahi guztiona den ondasun hau ideologekin eta aukera politiko jakin batzuekin lotua ager dadin. Denona da euskara eta Euskaltzaindiak denok irabazi nahi ditu beronen alde, inor uxatu gabe. Julio Caro Baroja jaun jakintsua mintzatu zen lehengo egunean horretaz (2). “Euskarak —esaten zuen— kultura-munduan politika kolore gabeko gauza izan behar du”.

Gaur-egun halako sentikortasun berezia piztu da bazterretan Ekologia zaintzearen alde. Gaur nahi da, bizitzeko behar dugun mundu-inguru hau bere mendi, oihan, ibai, arbola, landare, lore, arrain, itsaso, hegazti eta animalia-mota guztiekin, garbi, osorik eta orotariko izaki guztiekin kutsadura gabe eta ahal dela triskantza eta galerarik gabe atxiki edo gorde dadila. Bada guk nahi duguna ere horrelako zerbait da, ekologia-suerte bat da, Jose M.^a Sanchez Carrionek oraintsu gogoratu digun bezalaxe (3). Munduan diren hizkuntza ttipi eta handiak, den-denak izan dezatela beren lekua eta errespetua, gizadiaren altxorraren zati dira eta; denek osatzen dute gizonak bizitzeko behar duen mundu-inguru eta inguru hori galera gabe, osorik iraun arazi nahi dugu. Euskara geure mundu-inguruaren zati dugu, eta geuri aurrekoek eman ziguten bezala, guk ondokoei pasaraztea nahi dugu.

Hizkuntzetan munduan den aberastasun hori gordetzea, horra ideal bat ustez zibilizazio eta kultura gizatiar batek bultzatu behar duena.

Erdaraz nahiz euskaraz mintzo garelarik, ikaş dezagun gizonok anai-kiro bizitzen eta errespetua elkarri gordetzen. Halabiz.

(2) *Ikus Navarra hoy*, 26-IX-87.

(3) *Un futuro para nuestro pasado*; San Sebastián, 1987.

EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Leitza, 1987-X-25

Patxi Zabaleta

SARRERA

Euskararen alde historian zehar saiatu diren, eta lan egin duten, hainbeste eta hainbesteren oroimenez hasi nahi nuke Euskaltzaindiko nire sarrera mintzaldi hau. Egoera gogorretan batzu, esker gutxiren truke gehienak, baina Erromaren aurretik hemen zegoen hizkuntzak iraun dezan eta gureganaino iritsia izan dadin lortu duten guztiak gogoratu nahi nituzke. Euskara nondik datorren eta nola sortua den inork ez baldin badaki ere, oraindik zailagoa ote den, nago nola euskarak orain arte iraun ote duen eta nola bere inguru guztietan Erromako hizkuntza nagusitu zenean, latina alegia eta bere ondorekoak, nola diot euskarak iraun ote duen gureganaino.

Eta euskarak gureganaino iraute horetan gu bakoitzaren gurasoek inork baino esanahi haundiago izan dutela aitortu ondorean, oroitu eta gogoratu egin behar ere, orain berriro ezkutatu zaizkigun hiru euskaltzainak, Aita Intza, Manuel Lekuona eta Koldo Mitxelena.

Orain dela seiren bat hilabete egon nintzen Manuel Lekuonarekin arratsalde batez. Gela ilun samar batetan, argiak bestan kalte egiten omen zion, karpeta haundi batzu paperez beteak aurrean erakutsiz irripar murrirtza egiten zuen. Idazteko makina portatil edo eramateko horietako bat zeukan. —Bi behatzez besterik ez dakit idazten, esan zidan; baina halere hamabigarren tomoa laister argitaratuko didate— eta irriparra egiten zuen arrotasun apur batez.

Koldo Mitxelena ere aipatu egin behar nahi ta nahiez, zeren eta euskara gaurko bizimodurako tresna egokia egiten, hau da euskararen batasun literarioa egiten, bera izan baita, hain zuzen ere, aintzindaririk nabarmenena. Euskara idatzia denok berdin erabiltzeko ez du izandu gure hizkuntzak, beste hainbeste hizkuntzek izan dutena; zera alegia, estatu bat edo instituzio politiko nagusi bat. Nafarroako erreinua bera ere, nahiz euskalduna izan, ez zen euskaraz idazten zuen erreinua bilaka-

tu. Villasante jaunak bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan adierazten du (sarrera hiru) Nafarroako erreinuak hizkuntza ofizialtzat erromantzea hartu zuela, Kastillak berak baino lehenago. Baina orain euskararen batasuna, bere zailtasun, akats eta aurrera edo atzera joan-etorriekin egindako edo agintxea dagoen zerbait da, beste askoren artean, Mitxelernari esker.

Baina, halere luzeago egin behar dudan aipamena aita Damaso Intza deitutakoarena da, zeren eta haren tokian naiz ni euskaltzaindiko kidea eta ohitura zabaldu bat da akademia bateko kideak lekua utzi dionaren aipamena egitea.

Ohiturak dakarkidan zor hori pozik beteko dut, Aita Damaso Intza izenez ezagutua izan zen nire aurrekoa aipatuz.

Ehun urte betetzeko hogeitazortzi egun falta zitzaizkionean, 1986ko Irailaren 21.ean hil zen Damaso Intza. Haren jatorrizko izena Migel Olasagarre Zubillaga zen, Intzan jaioa eta erbesteraturik bizitu zen 32 urtez gainerako gehienak Iruñean igaro zituelarik.

Iruñean, Tuteran eta Zangotzan egin zituen bere ikasketa guztiak eta 1910ean kaputxinoen kide bezala apaiza egin zen eta Iruñean gelditu. Bertan bizitzekoa zen 1936 arte. Urte horretan Ondarribiko kaputxinoen fraile etxera joan zen eta gerraren hasieran fraile etxe hartan gertatutakoengatik lehendabizi atxilotu egin zuten eta gero berriz Ameriketara joan zedin erabakia harrerazi zioten kaputxinoen buruzagitzari. Ameriketan, Txilen hain zuen ere, egon zen Damaso Intza 1936tik 1968a arte. Beraz hogeitamabi urte.

Euskarari buruzko Damaso Intzaren lanak, batez ere gerrate aurrekoak dira. Ondorekoak 1968-tik honuntzakoak ez dira asko, esan bezela 82 urterekin eta gaixoturik itzuli baitzen.

Honela bada batez ere gerrate aurrekoak aztertu beharko nituzke. Hiru lan egite edo ekintza azpimarratu beharrak aurki litezke, lehendabizi aldizkari bat, *irugarrengo prantziskotarra* izenekoa; 1913ean sortzen da eta 23 urte irautekoa zen; 1921ean aldizkari honek 4.000 harpidedun zeukan. Azpimarratu beharra dago Nafarroan sortutako aldizkari zela, bertan egiten zela, Iruñean hain zuzen ere, eta alegia jende askori iristen zitzaiola. Sei urte geroago, 1919an, Damaso Intzaren eraginez batez ere, *zeruko argia* aldizkari erlijioso sortu zen; honek ere 1936a arte iraunen zuen eta beran ere Iruñean egiten zen. (*argia* izeneko aldizkaria ez da gauza bera). Eta Damaso Intzaren euskarari buruzko beste ekintza bat, berriz, "euskeraren adiskideak" deitutako elkartean, edo "euskaltzaindiko" eta "eusko irakaskuntzako" kide bezela egindako lanak dira. "Euskararen adiskideak" deitutako elkartea 1925an sortu zen Iruñean eta bere buruzagitzan Bernardino Tirapu azaltzen da berritu zen hiru aldietan; eta azkenekoan,

1933an baita ere Ignazio Baleztena. “Euskeraren adiskideak” elkarteari buruz, Damaso Intzak hamabi orrialdeko historia labur bat idatzi zuen. Bertan hona zer dioen hasierako urte haietaz ari delarik, “billatu nitun buru eta zuzendari izateko Larratxe’tar Jenaro jauna, Iruña’ko alkate izan berria, Udaletxeko artxibero zana, Olibier’tar Leandro jauna, Apaiztegiko Euskal-irakasle, Intxaurren’tar Migel jauna, Tirapu’tar Bernardino sendalari jauna. Lau edo bostak Larratxe’tar jaunaren etxean bildurik, gure eginkizuna eta eginbideak aztertzen asi giñan. Aldundian giñeuzkan zorionez Irujo’tar Manuel eta Baleztena’tar Ignazio jaun ospetsu eta euskaltzaleak. Oiengandik iritsi nuan gure errietako eskoletan euskeraz irakurri eta idatzi egiten erakusteko baimena. Baita, ikasten zuten aurrei “Aurezki kutxa”ko libretaz diru-sariak emateko eskubidea ere.”

Damaso Intza Euskaltzaindian 1921ean sartu zen, Elizondoko udal-etxean egin zuen sarrerako hitzaldia, urtarrilak 27an eta Ramon Olabide jaunak eman zion erantzuna. Gaia “zuketako” hizketa izan omen zen.

Damaso Intzaren euskara oso argia eta ulerterraza da. Ekintza eta laneko gizona bezela azaltzen zaigu; euskara erabiltzea da bere kezkarik nagusienetakoa, aldizkariak tresna bezela ulertzen ditu, edozein helburu estetikatik oso urruti. Horrengatik ez da arritzekoa gerrate aurrean izan ziren ikastola bakanen bultzatzaile bezela ere agertzea. “euskararen adiskideak” elkarteak bi ikastola sortu zituen Nafarroan, biak 1927an, elkarren artea 32 ikaslerekin hasi eta 128 ikasletara iritxi zirenak 68 pertsonen laguntzaz.

Ikus litekeen bezela joandako garaiak ez dira beti hobeak izan.

Harridura sortu didan zerbait aipatu nahi nuke, Damaso Intzaren harremanetan ez dut aurkitu Arturko Kanpionekiko erlaziorik, ezta bere “euskararen adiskideak” elkartearen kondairan aipamenik ere. Eta harritzekoa dela diot hori guztia, gogoan izanik Kanpion euskararen inguruko gora behera guztietan, behintzat Nafarroa eta Iruñeari dagokionez, azaltzen zaiguna dela.

Ameriketatik etorri ondorean, Euskaltzaindiko kide izaten jarraitzen du; zaharra da ordurako, 82 urte, oraindikan beste hamazortzi biziko bada ere; 1968ko Abenduan, etorri berria zelarik, Euskaltzaindiaren urrezko eztaiki ospatzeko egiten den Iruñeko biltzarrean bere garaiako beste euskaltzain batzuren aipamen bitxiak egin zituen eta lehen garaietako Euskaltzaindiaren lekukotasuna azaldu.

Damaso Intza ez zen literaturgilea, baizik eta gizartean euskara tresnatzat erabiltzea helburu zeukan ekintza gizona. Aldizkarietan egindako lanetaz gainera itzulpen batzu argitaratu zituen, eta horien artean, Esteban Adoingoaren bizitza; egin zituen baita ere erlijioso mailan lan batzu, esate baterako Mateo Mujika gotzaiaren aginduz egin zuen kristau ikasbi-

dea. Eta azkenik aipatu behar da *Nafarroako Euskal-Esaera Zarrak*, Nafarroako Diputazioak 1974an argitratua. Liburu honek berak badu beste argitaratze bat Bilbon 1927an *esaera zarrak* izenburu soilaz.

Aipatu beharra dago baita ere Damaso Intzak ez zuela ongi ikusi euskararen batasunerako bidea, edo gutxienez ez zituela inoiz ontzat hartu nahi izan ortografia ereduak. Nahiz eta bere aditza, euskara batuko aditzarekin nahiko bat datorren.

Ezagutu nuen aita Damaso Intza, orain dela hiru urte; ordurako osotara itsuturik zegoen, baina gogoan zituen bere gazte denborako eginahalak eta saminak. Eta batez ere gogoan zituen euskararen alde lan egindako pertsonak.

Oraingoak bezala zailak ziren denbora haietan zuhurtasunez eta hain luzaroan Intzak bete zuen tokiak eta haren asmoetako batzurekin bat natorren honek, hitzaldi honetan nire kezkarik sakonena ukitu (aztertu) nahi nuke, euskararen etorkizunerako oinarri eta baldintzak. Eta gai hori Euskal Herriko zati batetik Nafarroako ikuspegitik begiratuta batez ere.



Argitu nahi nuke ordea aldez aurretik; ez noala ohizko den euskararen atzerakadaz mintzatzeraz, baizik eta gure hizkuntzak bere etorkizun eta zabalkunderako nahitaezkoak dituen baldintzataz. Euskara bizi egin daitekeela lehendabizi gu, geu, -gu, gerok- ohartu eta aitortu behar dugu. Nahiz eta baldintzatua dagoen etorkizun hori; arriskutan alegia.

Euskararen etorkizuna jendearen eta herriaren borondatean oinarritu beharra daukagu. Borondate hori herri honek duen gizarte oso eta zabaLEAN, herri honek dituen ezberdintasun eta diferentzia guztien artean tinko eta tente eustean eta ezartzean legoke.

Jendearen edo gizartearen borondatea berriz ekonomia eta soziologia eta kultura mailako arrazoinek baldintzatzen edo mugatzen dute. Eta ondorioz baita arrazoin, gora behera eta arazo politikoez ere.

Gainera gizartearen borondatea gizarteko edo hobeki esateko gizasemeen beharrekin loturik dago. Beharra eta borondatea elkarrekin bizimoduak lotu egiten dituela gaureguneko edozein pentsamoldek onartutakoa da.

Gizartearen borondate hori eta gizarteko beharrak, loturik daude bizimoduko ekonomiaren, kulturaren eta soziologiaren harreman sarean.

Hizkuntza, gizartearenak diren harreman gehienetako tresna bat da, tresnarik garrantzitsuena, beste tresna eta bitartekoekin uztarturik dagoena baina azken finean tresna bat. Tresna denez gero egokia izan beharra dauka bete behar dituen premiak, helburuak edo egitekoak betetzeko. Eta premia edo beharrak bizimoduaren egoera bezela aldakorrak dira; gero eta aldakorragoak gainera. euskara Euskal Herriko bizimodurako tresna egokia izatea baldin bada ba, lehendabiziko baldintza, bigarrena tresna beharrezkoa bilakatzea litzateke. Baina guzti hori gizartearen eta gizarte honetako gizaseme eta emakumeen borondatearen medioz, bitartez; ez bakarrik biderik egokiena delako baizik eta bide bakarra delako ere. Gaur egun, bortxaz edo indarrez euskararen zabalkunderik ezin liteke lor, gogoan izanik gainera gure gizartean dagoen borroka eta aurkakotasunak hizkuntza tartean hartu duela. Era berdinean ezin dugu ahaztu ere, tamalgarria eta harriztekoa bada ere aitortu behar izatea euskarak etsaiak ba dituela gure artean. Eta ez da askibortxa ez egitea, baizik eta bortxaren edo inposaketaren irudirik ere, edo aitzaki biderik ere ez da utzi behar.

Euskararen etorkizunak gizarteko gora behera Soziologia, demografia, eta harreman guztiekin duen zerrikusia Koldo Mitxelena zenak maisutasunez adierazi izan zuen eta nik behin baino gehiagotan entzuna diot euskararen batasunaz ari zenean. Zera esaten zuen Mitxelenak, Bilbo uri euskalduna izan balitz batasunaren eredu edo oinarria Bilboko euskalkiak ezarriko zukeela, demografia hutsaren eragina ezin bestekoa irudi-

tzen bait zitzaion. Eta berdin baita ere, euskararen batasuna biologiarekin lotzen zuen Mitxelenaren esaldi ezagun hark.

(Hizkuntza), (eta) euskara (hizkuntzaren artean) gizarteko tresna bizi-modurako egokia eta beharrezkoa eta gizaseme emakumeek borondate eta aukera lipez askez onartzen dutena bilakatzea da -horixe da euskararen etorkizuna nahi dugunon helburua. Eta ondorioa berriz gizarteko maila guztietako harreman eta gora beheratan euskararen erabilpena bilakatuko da.

2. GAUR EGUNGO EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN. EUSKARAREN ERABILPENA

Aingeru Irigaraiek 1935ean (**Euskera** 1956, I-42, orr.) Nafarroak zeukan egoeraren azalpen edo deskribapena egiten du. Idazle berak 1974ean eta “una geografía diacrónica de euskera en Navarra” izenez lan beraren berritze bat ematen du. Bigarren lan honetan ordea eta lehendabizikoaren erreferentzia berdina eginez mapa bat dakar. Mapa horretan hiru lerro azaltzen dira Nafarroak euskararen muga non zeukan azalduz, lehendabizikoa 1778koa Lizarra eta Tafalla ukitzen dituena; bigarrena berriz Bonaparteren garaiekoa, 1983koa, Iruñea kanpoan utziaz Goñi, Orobía, Ibero eta Erronkariko harana barruan hartzen dituena; hirugarren lerroa, 1935ean Irigaraiek ezartzen duena, Goñiko harana, Erronkarikoa eta Ororbía, Ibero eta horrelakoak kanpoan uzten dituena. Irigaraien liburu hau Jose Maria Sanchez Carrion, Txepetxek 1970ean egindakoaren azterketa batez hasten da. Baina, Sanchez Carrionen azterketa bera ere —*El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*— Nafarroako euskalduntzat hartzen diren 145 herritan euskara duen azterketa da. (Barranka, Burunda, Araiz, Larruan, Basaburua haundia eta txikia, Bidasoa, Bertiz Arana, Baztan, Esteribar, Odieta, Ulzama, Imoz, Atez, Gulina).

Villasante jaunak berak aipatutako liburuan Nafarroan euskarak duen egoerari buruz ari denean, Irigarai aipatuz, azalpen edo deskribapen geografikoa ematen du soilik (2.kap.23.).

Baina gaurko egoera ez daiteke azalpen edo deskribapen geografiko hutsarekin egin.

Gutxiengoan jatorrizko hizkuntzak aztertzerakoan ohizko izan diren ikerketa geografikoak Estatuko beste hizkuntz politikan ez badute barne ondorio zuzenik izan ere, helburuak desberdinak zirelako, Nafarroako hizkuntz politikan zerikusia izan du bai Foruen Amejoramenturako legean nola ondoreko euskararen legean ezarri den “zona” edo lurralde konzeptoarekin. Eta ondorio hori benetan tamalgarrizat jo beharra daukagu.

Mapa linguistiko batek edo azalpen geografiko soil batek izan lezake helbururen bat edo beste, bai dialektologiaren alorrean nola euskararen aldaketetan ere, baina gaur egun gizarte maila batetan euskara Nafarroa osoko ondasuntzat hartzekotan mapak eta ikuspegi geografikoak baztertu egin behar ditugu, abiapuntu bezela behintzat.

Hona hiru arrazoi esandakoa oinarritzeko: A) Gaur egun euskaldunik gehiena dagoen Nafarroako herria Iruñea da; 25.000etik 30.000era, Iruñeko udalak eragindako ikerteta batek azaldu duenez. B) Gainera Iruñea Hiriburua da eta bertan herrialde guztiko ekonomiaren, kulturaren eta gizarteko harremanen erdi-gunea eta bide-gurutzea dago. Administralgoarekiko harremanak, ekonomiako gorabeherak eta kultura eta ikasketako arazo eta harremanak han dituzte ez bakarrik bertakoek baizik eta Nafarroako beste herri ta herriskatakoek ere. C) Gogoan izan behar da ere Tafailan, Imozko haranean baino euskaldun gehiago dagoela Jadanik eta Lizarran berriz Larraunen baino gehiago.

2.1.2. Jose Anjel Irigaraik, —lehen aipatutako Irigarairen semea— *Euskera eta Nafarroa bere liburuan* (Aranzadi 1973), bere bostgarren kapituluan, gaur eguneko euskararen egoeraz ari denean ez du eredu bezela mapa linguistiko bat erabiltzen, baizik eta kultura mailan, garai hartan orain dela hamabosten bat urte zeuden gora beherak dakazkigu. Orain dela hamabost urte gorputza hartzen hasi ziren ikastolak eta euskaldun berrien kopuruak esan nahi bat edo toki bat eskatzen zuen dagoeneko gure gizartean. Geroztik eta gero eta presa haundiagoz aldatzen joan da euskararen egoera. Pakita Zabaletak euskal ikaskuntza Nafarroan. Normalizazioaren oinarriak izena duen bere liburuan 1985/86 ikasturteko datuak ematen dituenean eskolaurrean eta oinarritzeko heziketa orokorrean ikastoletan 6.889 ikasle dagoela dio, Nafarroa guztiko % 8. Eskola publikoetan berriz ikasturte berean 1921 ikasle dago. Orain gutxi argitaratu diren aurtengo datuen arabera ikastoletako haurrek zazpi milako kopurua osatu dute eta eskola publikoetan euskaraz ikasten dutenak hiru milara inguratzen dira. Gainera euskararen irakaskuntza 4.509 hurrei ematen zaie eskolaurre eta OHO delakoan.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeari buruz lehen aipatutako liburuan dagoenez 1984/5ean 2.529 ikasleri ematen zitzairen euskalduntze edo alfabetze bidea; eta erakusketa hori Nafarroan hirurogei euskaltegi-tan egiten zen horietariko 24 Iruñean kokatuak zeudelarik. Ikasturte honetako zifrarik ez da oraindik argitaratu baino kopuruan hazkundera handia ez bada espero ere gero eta uzketak gutxiago ematen dela aipatu behar.

Komunikabideen harremanak, administralgoaren gero eta eginkizun zabalagoak, gizartearen beraren mugikortasunak eta Nafarroa beraren izaerak batasun batera garamazki eta euskara, Nafartar guztion ontasun-

tzat besterik ez daiteke hartu. Mapek edo azalpen geografikoek ez dute egia osoa azaltzen helburuak at utziaz eta nahiz ekonomiaren, lanaren eta administralgoarekiko harremanen munduan gure hizkuntza oraindik atzera egon emandako datu edo adibideetatik euskararen etorkizuna Nafarroan herrialde osoarentzat defendatu behar dugula eta herritar bakoitzaren eskubidea zaindu behar dugula aterako nuke ondorio bezela.

2.1.3. Joan den udaberrian Tuterako euskaltegi berria inauguratu zenean eta hiri hartako euskararen egoera aztertzerakoan, orain dela hogeit urteko Iruñeko zenbaki berberak agertzen zitzaizkigun: 1985/86 ikasturtean 32 ikasle zegoen orain dela 20 urte Iruñeko San José Plazako salsipuedes aterararik gabeko kalean hasi zen ikastolan ziren bezelatsu. Hirurogei eta hamar pertsona heldu ari ziren euskara ikasten; orain dela 20 urte Iruñeko peñatan ere lehen euskarazko eskoletan holatsuko kopurua ari zen.

Euskara tresna da, baina gure herriaren sinbolo eta ezaugarririk nabarmenena den bezela, Kanpionek hainbestetan errepikatzen zuen modura baita ere herri guziaren ondasuna da eta ondorioz herritar bakoitzaren eskubidea. Zentzu horretan ezin ahaztu korrikaren lekukoa edo testigutxo horribeherako zelai lehorrak barrena doanean askotan euskaraz ikasteko zaharregiak direnen atzaparretan joaten dela gizaldi galdu baten itxurara edo nahi baduzue gizarteari galdutako katamaila edo eslaboi galduaren antzera. Eta horiek ere eskubide dutenak dira, euskara den ondasunarekiko.

2.2. Euskararen egokitzea

Euskaltzaindiaren bete beharrik nagusiena gaurko bizimodurako euskara egokitzea da. Horrekin loturik baditu ere instituzio mailan bere zereginak bai euskal komunitateari dagokionez eta baita ere Nafarroari berari dagokionez. Honela adierazten bait dute bai euskal komunitate autonomo nola Nafarroako hizkuntz lege bereziek.

Lehenik euskararen batasuna zen beharrezkoa. Gero —hizkuntza bizia izateaz gainera— zientzia eta teknika mailatako gora beheratan sartzeta. Hor daude gaurregun Euskal Komunitateko unibertsitateko lanak, Udako Euskal Unibertsitatea eta beste maila askotako kultur gintza.

Baina egunerokoa hizketaren premiak, telebista, zinema eta irrati hizketak sortzen duten premia eta ohitu beharrak, guzti horrek lana egiten jarraitu beharra dakar.

Euskaldungoa berritzen ari da, euskaraz hitzegiten ari direnen multzoa aldatzen ari da. Baina multzo horrek gainera hizkuntza minorizatuek eta gutxiengo batek erabiltzen duteneko arazo guztiak dauzka. Nafarroan

euskaraz bostetatik batek baino zerbait gutxiagok dakigu, 500.000tik, 90.000ak gutxi gora behera; baina dakigun horiek ere gure harremanik gehienetarako ez dugu euskara erabiltzen.

Orduan ba, Odgen eta Richard, eta beste hizkuntzalari askok esan zuen bezela hizkuntza bitartekoa izatez gainera, depositua ere baldin bada kulturarentzat, hain bazterturik dagoen hizkuntzari asko falta zaio normaltasunera iristeko. Asko falta zaigula ezin ukatua da, bai hizkuntza edo hizketa hitzegina bezela, nola idatzitakoa bezela, nola kultur edukin edo depositu bezela ere.

3. Nafarroan euskararen egoera zein den aztertzeko ordea, esandako guztietaz gainera, hau da, hitzegiten den hizkuntzaz eta idazten edo erakusten den hizkuntzaz gainera, hizkuntzari buruz zer pentsatzen den ere aztertu beharra dago.

Begirada bat eman behar zaio horretarako Nafarroako gizarteari ea zer pentsatzen ote duen, ea zer asmo ote duen eta ea norainokoak ontzat hartuko ote lituzkeen eta norainokoak ez. Hau guztia alegia ez da berdin Nafarroa osoan, baina orokorki eta banaz bestekoan hartu beharra daukagu.

Aipatu beharrezkoa da gainera esandako ikuspegi hori hurrengo hiru arrazoinengatik:

A) Nafarroako gizartean erakunde edo instituzioen eta komunikabideen jarrera ez delako beste hiru probintzietan bezelakoa. Komunitate autonomoan ez dute behar haina egiten, euskara baztertu egiten da normalki, politikoez oso gutxitan erabiltzen dute adibidez, baina hala eta guztiz ere inork ez du zalantzan jartzen euskararen garrantzia eta euskara erabiltzeko eskubidea, gutxienez agirian eta denen aurrean. Nafarroan ordea euskararekiko eskubidea ukatzen da eta eztabaidatzen da egunero eta bizimoduko maila askotan.

B) Gizarteak zer pentsatzen duen euskarari buruz oso garrantzitsua da, kontuan hartzen badugu horrek zerikusi izagarria izanen duela ondorean ematen diren erantzunekin.

C) Eta hirugarren arrazoina berriz zera da, aldatu egin dela, euskarari buruz Nafarroako erakunde eta komunikabiderik nagusienek pentsatzen dutena; Orain dela gutxi arte, euskararen alde ez zeudenek —utz dezagun “etsaia” hitza beste baterako— gutxietsi edo gutxitzat jotzen zuten; despreziatu eta askotan parre egin. Orain ordea ez dute aurreraz aurre eta zuzenki euskararen kontrakorik esaten. Baizik eta euskara batua-aren kontra hitzegiteari eman diote, artifiziala dela, ez dela ulertzen, eta holakoak; giro horretan lehen ahaztuta zituzten euskalkiak goraiatzaren hasi dira.

Nafarroako euskaldun zaharren artean ere euskarari buruzko eritzia pixkaheka aldatzen ari da. Badira oraindik Sanchez Carrionek 1970an

azaldu zuen bezela berena den euskara gutxietxi eta batzutan gorrotatu ere egiten dutenak; hain zuzen ere beren bizimodurako ez dielako errez-tasunik eman, baizik mugak jarri. Baina inguru urbano edo hiritarretan euskararen balorapena haunditzen ari den neurrian, Iruñerrian batez ere, balorapen txar hori gutxitzen ari denik ezin uka.

Azkenik badira politikan erradikaldu multzoren bat edo beste euska-ra arrotz bezela hartzen dutenak eta edozein eskakizun, ez baldin bada behintzat ongi erabiltzen eta azaltzen, inposaketatzat salatzen dutenak.

Eta jarrera guzti hoiak kontuan izan behar dira, hurratsak aurrera eman nahi baldin baditugu, hersiak gainera igaro nahi ditugunean gure puskak han utzi gabe.

3.1. Nafarroako politiko batzuen artean ere, oso nabarmena da giro berria. Euskara batuaren kontra hitzegiten dute, —batere ezagutu gabe gehienetan— eta bapatean euskalkien alde agertu zaizkigu. Ez euskalki horiek ikasten edo erabiltzen dituztelako, ez; baizik eta euskara beraren aurka hitzegin gabe, eta askotan goraiatuz, euskara batua gaitsetsi nahi dutelako.

Halere eta inon batuaren beharra argi egotekotan, Nafarroan dago, euskaldunik gehiena den herrian, Iruñean —25.000-tik, 30.000-ra— euskal-ki bakarra batua besterik ez daitekkelako izan. Eta berdin beharko luke Lizarran edo Tafallan.

3.2. Euskalkien kontra ez doa euskara batua, baizik eta euskaraz ez hitzegitea. Batuak izan litzake hutsegiteak eta akatsak, baina ez dago beste biderik euskarak iraun dezan eta aurrera joan dadin.

Nahitanezkoa jartzen ari zaigu Nafarroan azalpen eta esplikaziorik zabalenak ematea euskara batuaren alde. Behar bada kanpaina baten moduan eta guzti.

3.3. Euskararen zabalkundeak Nafarroan nahitanahiez elebitasuna hartu behar du oinarritzat. Elebitasuna berriro ere defendatu beharra daukagu buru belarri. Badakigu elebitasunak ezin egoneko oreka gogoe-razten digula, ekilibrio mugikor bat bururatzen digula, arrisku bat alegia. Badakigu diglosiaren itzalak estali egiten duela elebitasunaren ahala edo posibilitatea, baina gure gizarteak ez du inolaz ere beste biderik ontzat hartuko. Eta bide hori berriz ahala da, ibiltzeko modukoa.

Liburu batek, argitaratua *euskararen borroka* izena duen Eusko Jaur-laritzak hiru probintzietako egoeraren definizioaren estadistika ematen duenean, Arabako probintzian erantzun guztiz ezberdina ateratzen da beste bi probintzietakoaren aldean. Gehiengo batek, % 34ak beren helburutzat “nahi luketen guztiek ikas dezaten lortzea” dela aitortzen dute. Beste bi probintzietan berriz erantzunak askoz ere erradikalagoak dira.

Nafarroan berriz, eta dakigunez batez ere Iruñean helburu hori “nahi luketen guztiek ikas dezaten lortzea da” gehiengo haundi batek ontzat hartzen du. Hortik beste hurratsa, gehiengo batek ere onartzen duena, “nahi duten guztiek erabili ahal izan dezatela lortzea da”.

Niri oraingoz teorizazio aldetik oso defendagaitza izan arren askorentzat gure eskakizunetan abiapuntu horri erantsi behar gatzazkiola deritzait.

Alde batetik hizkuntza tresna denez gero, nahiz kuttuna eta maitagarria izan askorentzat, gauza arrunta eta erabiltzeko erraza izan behar duelako gehiengoarentzat, galdu gabe erabil daitekeena edo gutxi galduz. Eta horretaz gainera nire iduriz betiko edo jatorriz euskaldun direnak eta euskaldun berri eta ikastola edo eskolatan euskaldunduak holatsuko egoera batetan elkarrekin topo egin behar dutelako.

3.4. Euskararen aukera, —nahi duenak ikas beza, nahi duenak erabil beza— gaur egun Nafarroan nonahi defendatu daiteke eta askotan gainera aurrera ateratzen da. Aukera hori ordea bortxaketa edo inposaketa bezela agertaraz baldin badezakete, nahiz gezurra izan, ez dago deus egiterik.

Aukera, opzioa, askatasunez jendeak egin dezakeen erabakia... hori dena defendatu daiteke legeei buruz, komunikabideei buruz, ofizialtasunari buruz ere; eta baita ere ekonomiako eta laneko munduari buruz (eperen baten barrenean). Eta hori dugu bidea; gainera bitarteko ekonomikoak lortzeko ere.

(Eta guzti hau zergatik? Ez ote naiz ari ni neu mugak jartzen?. Nire helburua eta saiaera betire ez da hori, baizik eta bideak bide eta ez hesi izan ditzagun lortzea. Gaur egun elebitasunak arrazoin teoriko serio eta garrantzitsuengatik duen prentsa edo irudi txarrak galeraz bait liezaguke lorpen zehatzak izatea).

(Askatasun edo aukera hori alegia ekonomiakoa) gero eta zailagoa eginen zaio edonori aukeraren bidetik egiten den eskakizuna ukatzea Nafarroan.

4.1. Gizarteak euskara tresna bezela bere bizimodurako erabil dezatan, eta horretarako borondaterik izan dezatan, tresna horrek egokia izan beharra dauka.

Egokitze hori ez dezake eta ezin ahal izan du Nafarroak. Ez diezaioke holako lanari ekin ere. Ez Euskal Komunitateak ere. Hori Euskal Herri osoaren egitekoa da edo eta ez du inork eginen.

Bereizi behar da ordea, tresna beraren egokitzea eta baita ere tresna hori erabiltzen dutenen jabetasuna. Adibidez latina zientzia eta teknikarako hizkuntza egokia zen orain dela ehun urte, medikuek eta batzutan injenieroez ere latinez ikasten bait zuten, baina ez zen hizkuntza bizia.

Euskarari dagokionez, behar beharrezkoa da hizkuntza biziaren eta zientzia eta teknikarako egokitasuna batetaratzea; behar beharrezkoa zaigu betiko euskaldungo zaharra eta euskaldungo berria harremanetan sartzea... eta hori egiteke dago Iruñerrian; herrietatik etorritako euskaldunak eta euskaldun berriak eta/edo eskola-ikastoletatik ateratakoek harremanik ez daukate; eta horrek kentzen dio indarra euskaldungoaren kopureari.

4.2. Euskaltziandiak, Euskal Herri osoa besarkatzen duen erakunde bakarra bezela, hizkuntza egokitzeaz gainera, hizkuntzaren etorkizun eta zabalkuntzaz arduratu beharra dauka, nahiz eta helburu horiek lortzea ez dagoen bere esku.

Horregatikan, bere esku ez dagoelako holako lorpenik burutzea, hizkuntza egokitzeaz gainera, euskaldungo ezberdinen artean, herrialde eta erakunde ezberdinen artean batetaratu edo gutxienez hurbilduko dituen sarea sortzeko bulkatu egin behar.

Ez ote da ba lortuko egunen batean Europako erakundeek ondasun garrantzitsu bezela onar dezaten gure euskara eta nazio arteko babesia izan dezan.

Euskal Herria, euskaldunen herria, euskara daukagunon herria baldin bada, euskaraz bizi nahi dugunon herria bilakatzera edo bihurtzera iritsi behar du.

4.3. Euskal Herriaren osotasuna eta herritasuna azken finean euskarak, guztion ondasun horrek, definitzen ditu. Osotasun horrek bere ondorioak ere izan ditu mendeak zehar. Hor dago, adibidez, Gipuzkoak euskarari eustean, erdian egoteagatik beste herrialdeei zor diena. Herri erdaldunekin kontaktoa Araban, Bizkaian, Nafarroan eta Iparraldean egiten zen; horietan zihoan euskara galtzen bere atzapar luze eta meheak lurak dituen mendi, muino eta harrobi guztien izenetan erantsiz... borroka horrek Gipuzkoako euskara zaintzen zuen bitartean.

Nafarroak ez baldin badezake bada euskararen etorkizuna beste herrialderik gabe pentsatu, ez da ere itxurakoa Nafarroarik gabeko euskararen etorkizuna, oraingoz eta hemen larriago baldin bagabiltza ere.

4.4. Bestalde, hemengo egoeraz ari naizenean, aipatzeko besterik ez bada ere, Foruen Hobekuntzarako lege foralaren 9garren artikuluan Nafarroa zatitu eginen zela ezartzen zen. Eta joan den urteko Nafarroako euskararen legeak hiru zati egin du, euskalduna, euskalduna ez dena eta mixtoa. Halere legearen zabalkunde guztia gobernuaren esku gelditu da. Horregatik euskararai dagozkion eskakizun guztiak, erreibindikazio guztiak zilegi dira eta egin beharrak etorkizunari begira, aipatutako 9garren artikulua eta euskararen legea aldatzea lortu arte.

5. NAFARROAKO EUSKARAREN LEGEAREN ZABALKUNDEA

Lehen aipatu dudan bezela Nafarroako Euskararen legeak, hiru atal edo gai ukitzen du:

Heziketa, komunikabideak eta koofizialtasuna, nahiz eta beste zenbait gaitaz aipamenik egiten duen ere.

5.1. Heziketari buruz, hona baldintza, hona gutxienez erabaki behar litzatekeena: edozein nafartarrek eskubide izatea heziketa euskaraz berak —edo bere seme-alabek— hartu ahal izan dezaten. Bestela guztiona den ondasun hori ukatu egiten zaie batzuei. Eta gainera hizkuntzak berak ere nahitanahiezkoa du, denona bezela onartua izan dadin, denok behar dugu izan eskuratzeko bidea.

Nafarroako Gobernuak nahi baldin badu egin dezake zabalkundea bere esku gelditzen bait da Urralburuk Eskola paktua dela eta ahalkera egonen dela esan du berriro. Horregatik eskakizun edo erreibindikazio hau ez da bakarrik behar beharrezkoa, legezkoa eta lor litekena baizik.

Nafarroako Gobernuak nahi baldin badu euskaraz heziketa izatearen opzioa edo aukera ezar lezakelako bai Elizondon, nola Iruñean, Lizarran, Tuteran edo Kaskanten. Orain erne egon behar dugu helburu hau lortzeko, heziketa euskaraz eta dokainik.

Hau dena ahaztu gabe, noski, Foru Hobekuntzarako Lege Foralak eta bere ondorioa den Euskararen legeak euskarari ematen dion tratamendua gaitsesten dugula, Euskaltzaindiak egin zuen bezela.

Baina Nafarroako euskararen legeak Magisterio Eskolako salbuespenaz aparte ez du irakaskuntza ez unibertsitarioa besterik ukitzen edo arautzen. Legetik kanpo gelditzen dira ondorioz, bai heziketa bereziak, nola unibertsitate mailako ikasketak guziak. Horiek denek eskakizun edo erreibindikazio baten helburu izan behar dute Nafarroako Gobernuak onartu berri duen Unibertsitate Publikoan eta abar eskuak aske edo libre dauzka nafartar guztoi euskaraz egindako heziketa edo ikasketaren aukera onar diezagun. Honetarako Euskal Herri osoko harremanak sendotzea ordea ezinbestekoa da.

5.2. Gerora begira nahitanahiezkoa da elebitasuna egiazkoa izan dadin hiriburari hiriburuaren trataera ematea, Bruselasean antzera adibidez administralgoa dagoen hirian, Iruñean, euskararen egoera ofiziala trinkotuaz eta sendotzuez. Ez du asko esan nahi Elizondo, Leitza edo Ezkurran euskara ofiziala izateak, gero Iruñean dauden erakundeekiko harremanak ezin baldin badira hizkuntza horretaz baliaturik egin. Koofizialtasunari buruz, nahitanahiezkoa da egiazkoa izan dadin eta ez farragarrikeria bat kapitaleko elebitasuna ere sendotzea.

5.3. Komunikabideei buruz berriz, beharrezkoa da gutxienez bai irrati eta bai egunkari mailan euskararen presentzia orokorra bihurtzea. Helburu hau ez da Nafarroak bakarrik egin dezakeena, edo hobeki esateko Nafarroako erkundeetatik bakarrik lortu behar dena, zeren eta komunikabidei dagokionez ere Euskal Herriaren osotasuna eta Euskal Herriko herrialde eta lurraldeen harremana ezinbestekoa bilakatzen baita.

5.4. Legeetan agertzen diren hiru atal klasiko horietaz gainera ordea —hezkuntza, ofizialtasuna eta komunikabideak— gizarteak dituen ekonomia eta kultura mailako harremanak eta batez ere sozial mailakoak ez dira euskararentzat ukatuak utzi behar, baina euskarak gizartearen borondatea beste biderik ez dauka hor sartzeko.

Zaila da entepresetako eta negozioetako munduak euskara sartu nahi izatea, espainola bera ere kasu askotan bazterten den bitartean. Baina da dago horretarako biderik, adibidez abiapuntu bezela zerbitzuak ematen dituzten erakunde publikoek, ofizialtasuna beraren eraginez elebidunak izaten lortzea eta Canada eredutzat hartuz, egokitzapenak egokitzapen, esan litezke hainbat urrats eremu hauetako helburuak lortzeko.

5.5. Euskal Herriak estatu bat izan balu, euskararen erabilpena, eta baita normalizapena ere, eginik egon zitekeen. Baina estaturik ezean eta gure zatiketa egoera gogoan harturik, hizkuntzari dagokionez, erakunde harremanak, hau da harreman instituzionalak, baita estatuen arteko harremanak ba dira ere lortzea helburutzat jo behar dugu. Hau da beste nazioarteko kasuetan gertazen den bezela euskarari buruzko hitzarmena egitea ez bakarrik Komunitate Autonomo artean baizik eta estatuen artean ere ezin ahaztu dugun helburua da nahiz eta urrutiko helburua iduri.

PATXI ZABALETA-REN HITZALDIARI

PIARRES XARRITTON-EN IHARDESPENA

Leitza, 1987-X-25

Jaun andereak,

Atsegin dut eta ohore, Euskaltzaindian azkenik sartua naizen honek, nere ondotik sartzen zaigun Leitza Juandegi-ko seme honi, bere sorterririko udaletxean, Euskaltzaindiko atea idekitzea eta aita Migel Olasagarre Intzako euskaltzainak: joan den urte arte zeukan aljian jarreraztea. Egiten dudan urrats honek ordea eskatzen dit —labur bada labur— bi hitz erraitea: bat lehenik zuri, Patxi, zure lagunarte berri honen aurkezpena egiteko; bestea gero zuei, jaun andereak, eta bereziki euskaltzainkideak, gure lagun berriaren aurkezteko.

Eta lehenik, zuri Patxi, Euskaltzaindiaz hitz bat erran behar-eta, zer erranen dizut bada? —Euskaltzain guziek kezka nagusi ber-bera dugula, hots euskara eta euskararen iraupena eta garapena eta hedapena. Bainan bestalde Euskaltzain guztiok aski ezberdinak gara, bai adinez— hiru-hogei bat urteren artea baita Pello Salaburu, gitariko gazteenaren, eta Jose Migel Barandiaran, gure gehienaren artean —bai ofizioz— badaude gutartean ikerleak eta irakasleak, idazleak eta hizkuntzalariak, apezak eta fraileak eta ere “prakadunak”, erraten ohi zen bezala, edo “laikoak”, zentzu orotan adierazten dugun bezala —bai aburuz ala sinestez ezberdinak ere— alderdi eta fede eta uste askotakoak biltzen garenez geroz. Ta horrela izan da, nik uste, Euskaltzaindian, elkargo hau sortu zen lehen egunetik beretik. Iduritzen zait ordea, saiatzen garela halere guztiok, Paul Valéry poeta frantsesak bere buruari eta bere Akademiako garaikideei emaiten zien aholkuari jarraituz: “Enrichissons-nous de nos différences!; “gure ezberdintasunez duntu, ondu eta aberastu gaitzela!”.

Ohar bakar bat oraino egin behar banu, ausartuko nintzateke bada honen aitortzera: Ezberdintasun bat “ments” dugula —Ziberotarrek dioten bezala— gure lagunartean: Nahiz andreak —eta nolakoak! —onartzen ditugun gure elkartearen goiko eta behereko mailetan, bai ohorezkoen bai urgazleen bai laguntzaileen lerroetan, euskaltzain tituludunen sailean

ez dugu oraino emakumezko bihirik sarrerazi. Maila horretan, Euskal Herriko etxekanderei Euskaltzaindiko atek hersten zaizkie orainokoa.

Historiazale batek erranen dit menturaz, kontuz ibili behar dugula gure Euskal Herri honetan gure emakumeekin; ez dakigun gerta Joani Paulo II.aren egun hauetan, Gregorio VII.aren mendean bezalako zerbait izigarri: Iruñeko apezpikuaren alkiak jabetu baitzen omen, orduan, Santxa delako kondesa (1).

Dena dela, gai hau beste zenbait bezala eztabaidatzeko ordua etorriko zaiguke, ondoko egunetan, Euskaltzaindikoei, eta zu bezalako gizona, Patxi, lege eta arau eta erakunde mota guzietan aditua zauden hori, baliagarri eta beharrezko izanen zaitugu, ala gure elkartearen barneko ala gure elkartearen gaineko erregela edo arau batzuren eragina, gure helburu nagusien eretzean, aztertu nahiko dugunean.

Ezen, Jaun andereak, eta ene euskaltzainkideak, hauxe dugu ofizioz eta ofizialki, Patxi Zabaleta euskaltzain berria, gaur Iruñean bizi eta lan egiten duen abokat edo “altegin” (2) ezaguna, bai eta ere, ezkerreko alderdi abertzale baten izenean, Iruñeko udaletxean zinegotzi sartua dena.

Bainan hori baino lehen —nahiz hori ahantzi gabe— zuen lau haurretatik bigarrena eta zuen seme gehiena duzue, Leitza Juandegiko nausi-etxekandere ohoragarriak, Patxi, orai dela 40 bat urte sortu zaitzuen. Hemen bilduak garen guzien eta beren ezin etorria bidaltzen dizueten Hegoaldeko eta Iparraldeko ainitz adixkideen goresmenak eta zorionak behar dizkizuet eskaini, eta bihotz bihotzez eskaintzen dizkizuek, zuei Patxiren gurasoei eta anai-arrebei, haren lagun Koro eta alaba maite Olatz eta Miren-i bezala.

Zuhaur aldiz Patxi, zinez aspaldi baitu —hogoi urte pasa, nik uste— eta Leitzako Jose Mari Aleman beste adixkide baten bitartez, seguru, elgar ezagutu genuela, Baiona edo Hazpaneko alde horietan euskalzale moltzo batzuk egiten genituen batzarre eta bilkuretan; geroztik joan dira urteak —joan dira neretzat, bainan zuretzat ere bai, Patxi, joan eta joaiten ororentzat— bainan Euskaltzaindiaren aitzakiarekin maizago elgar ikusteko parada izanen dugula engoitik gogoratzea bera atsegin dut.

(1) JOSÉ GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona, S. IV-XIII*, T. I, Pamplona, 1979, 224-228.

(2) P. CHARRITTON, *R. M. de Azkue eta P. Broussain-en arteko elkarriketa*, Euskaltzaindia, *Iker-4*, Bilbo, 1986, 295: “altegin”, “avocat”, Piarres Broussain-ek asmatu hitza.

Horiek hola, eta ez dezan nehork erran adixkidetasunak itsutu nauela, hona hemen bi lerro, egungo gertakariari buruz, Mikel Atxaga kazetariak herenegun idatzi dituenak: “Aita Inzaren lekurako egoki aukeratua izan da Patxi Zabaleta Nafarroan, aho hizkuntza onaren jabe, idazle eta eskualduntzearen arazoaz kezkatua bait da” (3).

Azken puntu honetatik hasteko, erran nezake —norbaitek hemen ez baleki-nola 69-70 urteetan ibili zinen lanean Periko Diez de Ulzurrunekin, *Principe de Viana* aldizkarian eta ber denboran, Nafarroako Ikastolen liberatu eginkizunetan, bai ta ere, 68-73 urteetan, Arturo Campion euskaltegiaren zuzendaritzan, baina aski zaigu, adixkide ona, oraintxe eman diguzun hitzaldia entzutea, ikusteko noraino kezkatua zauden euskalduntzearen arazoaz.

Alta, aho hizkuntza ona baino hobearen jabe zarela ere, Patxi, badakigu orai hemen garen guziek; baina lehenagotik bagenekien, bai Udako Euskal Unibertsitatean behin, bai Ziberoko Maule herrian Aberri egun batez beihala, argi eta sutsu mintzatzen entzun zintugun zenbaitzuk.

Gure euskal idazle hoberenetarik zarela ordea, bai hitz neurtuz bai hitz lauez, hori menturaz gutartean askok ez daki. Gure herri honetan, behin eta zorigaitzez, ez da asko idatzi —nahiz, orai eta hemen berean, Leitzan bereziki, erran digutenez, gauzak aldatzen ari diren (4)— eta gure liburu gutxi horiek ez ditugu ez irakurtzen ez ezagutzen. Zergatik ez dizuet aitortuko nihonek aspaldian eskuratuak neuzkan Patxiren liburuak hantxe neuzkala, beste askoren artean, nere liburutegiko apaletan 10, 10-12 bat urte honetan? Oraikoan hargatik hurbiletik, eta buruan buru, irakurri ditut, hiru obra garrantzitsuenak: Lehena 1972koa, “Zorion baten zainak”; bigarrena 75eko, “Ezten Gorriak”; hauek biak olerkiak eta hirugarrena prosaz 77koa, “Euskomunia ala Zoroastroren artalde!” (5).

Ez naiz ni, egia erran, ez pertsulari ez olerkari behinere izan, ez literatura azterketan egundaino biziki higatu. Bakarrik hitz joko politen, esaldi apainen, irudi deigarrien, gogo pizgarrien zale daukat ene burua. Eta egun hauetan, “Gorka Trintxerpe” izenordearen gibelean argitaratu ziren lehen olerkiak berrirakurri ditudanean, aitortu dut zinez zuzen zabilala “Etor” argitaldaria, “Askatasuna”, “Zalantza”, “Izarrak erori dira”,

(3) “DEIA”, Bilbo, 1987-X-23: M. Atxaga, “Euskaltzaindia Berritzen”.

(4) Ikus hemen berean, Patxi Zabaletak bere hitzaldian, Leitzako euskal idazleen kopuruaz dioena.

(5) GORKA TRINTXERPE, *Zorion baten zainak*, Etor, Bilbao, 1972; *Ezten Gorriak*, Idatz, Pamplona, 1975; *Euskomunia ala Zoroastroren Artalde!*, Idatz, Pamplona, 1977.

“Hitz debekatu, hori, Euskadi”, “Euskal Herriko baratzean” “Domuit Vascones” eta hemen aipa ere ez ditzakedan horrenbeste olerki eder biltzen dituen liburua sartzen zuelarik, Orixe handiaren, Patxi Altunaren, Txillardegiren, Koldo Mitxelenaren, Mikel Lasaren eta beste horrelakoen idazlanen sailean. Bada hor erraztasun bat, zorroztasun bat, musika bat eta umore bat, ni hasteko, xarmatzen nauena. Olerki horiek berak, eta gero, oihal beretik, Patxi Zabaletak josi zituen bere bigarren liburuko neurtitzak, zituzkeen gogoan, ni ez bezala aditua den Juan Mari Lekuonak, 1978 ko *Jakin* aldizkariaren 5. zenbakian, gerla osteko poesigintzan kritika lan sakon bat argitaratzen zuelarik. Poesigintzaren etapak mugatzen zituen lehenik Lekuonak: 1.a. *Euzko Gogoaren* aroa; 2.a “Uhin Berria”, San Martin adixkideak erran zuen bezala; eta 3.a 1968 tik 1978 ra, “Zailtasun garaia”. 3. aro honetan sartzen zituen Gandiaga, Lete, Artze, Koldo Izagirre, Luis Mari Mujika, Patri Urkizu, Mikel Arregi, Joseba Zulaika eta gure Gorka Trintxerpe hau. Belaunaldi horren bilakabidea adierazteko Juan Marik gogoratzen zituen “errepresionaren eragina alde batetik, herri giroarena bestetik”, eta Xabier Lete-ren oihu ezaguna aipatu ondoan: “Eta poeta, eta poeta...” Mikel Lasak, Patxi Zabaletaren poema bat irakurri-eta berari egin zion ateraldia errepikatzen zuen: “Gaur ezin daiteke poesiari egin surrealismoaren bidetik ez bada” (6).

“Surrealismoaren bide” hori hartu zinuela, Patxi, uste dut, ez bakarrik zure olerkietan, baina ere bai nolazpait zure prosazko ipuinetan:

Ene herriko goibeltasuna
 Abestutzen dut saminki,
 Ene herriko askatasuna
 Itxaroten dut sakonki,
 Langileriak izanen ditu
 Egun alaiak ugari,
 Bin bitartean ene kitarraz
 Kantatzen noa, ni, beti...”

kantatu bazinuen behin (7) pertsulariek bezala, historia konda hasi zinen gero, supazter xokoko gure aitona iduri.

Ez dut ordea erran gure haur tipiei kondatzeko historiak dituela idatzi Patxi Zabaletak. “Euskomunia” irakurri dudalarik, oroitu naiz, Patxi, asko maite zituen Narbaitz kalonje zenak erran zidala, zutaz mintzo ginen halako aldi batez: “Ez dut uste nehor horrelako ateraldi harrigarririk hoin polliki ateratzen duenik!” (8).

(6) J. M. LEKUONA, “Poesigintza eta kanta gerraostean”, *Jakin* 5, Donostia, 1978.

(7) G. TRINTXERPE, *Ezten Gorriak*, 54-55.

(8) PIERRE NARBAITZ kalonjea (1910-1983), Baionako bikario jeneral luzaz egona, euskal idazle ezaguna: *Kattalinen gogoetak*, *San Franses Jatsukoa*, eta beste...

Ez dakit zuzen zein ipuin, zein mito, zein igarlekeria, zein nobela motz zuen gogoan, hori erraiten, gure kalonjeak: “Martzelina” ala “Baztango gaztea”, “Izokiaren jauzia” ala menturaz “Euskabedertasuntxo”? Dena den, zure ipuin horiek, beste euskal idazle baten, zuk eta nik hain gogoko genuen Monzon zenaren antzerki bat edo beste gogorutzen didate askotan. Haiek bezala naute xoratzen, nere hats laburreko irudimenak eraman ez nazakeen amentsetako eremuetara eramaiten nautelako (9). Gaitz bat bakarrik kausitzen diet zure lanei, adixkide Patxi, gaitza hauxe dute: hamar urte baduela jada zure azken liburu horren argitaratzeak. Eta beraz egun elkarte berri honetan sartzan zarenaz geroz, zure etxeko lan eta kezka guzien artetik zor diguzu —zure lagun Korok eta zure alaba maiteek barka diezadatel!— zure dohain ederraz baliatuz, poema berriak ezpada ere —poemagintzarako sasoi bereziak baitira nere ustez— ipuin eta kondaira berri aberatsak ontzea.

Ixildu aintzin bizkitartean, banuke puntu bat oraino aipatzeko: Badu orai berrogoi ta zenbait urte —zu sortu aintzin, Patxi,— baziren orduan ere “errefuxiatuak” Euskal Herrian. Bainan orduan Iparraldeko Euskaldunak ziren heldu, Alemaneri ihesi beren haurride Hegoaldekoen gana. Bagenituen horrela ikasle lagun batzu Iruñeko Semenari Nagusian aterbe aurkitu zutenak. Gauza horiek ez dira asko aipatzen, bainan ontsa oroit naiz, ordukotz abertzale ginen Iparraldeko gaztek, lagun horien bitartez jakin genituela, ezagutzen ez genituen bainan jada maite genituen, gure Aberriaren bazter batzuetako berriak. Entzun ginuen bada, beren ziloetan sarturik eta gorderik egon behar zuten urte ilun haietako abertzale anaiek bazituztela buruzagi argi ta bipilak beren artean, itxaropenaren sua bizirik zeukatenak: Bizkaia aldean ba omen zen Juan Ajuriagerra izeneko inginadore famatu bat eta Nafarroako Iruñean gaitzeko gizona zela, zioten, Jose Agerre delako euskalzale handia (10).

Ainitz urte geroago konturatu nintzen 1940-1945. urteetako Jose Agerre hori bera zela, 1889 an jaioa Iruñean eta 1919an Euskaltzaindian sartu izana zen Nafar euskaltzain hura bera. Gero ordea gertatu zitzaion Jose Agerre-ri, beste euskaltzain bihi bati gertatu ez zaiona: hots bizipidez Euskal Herritik urrundu behar izan zuelakotz, bere kargua utz zezan

(9) TELESFORO MONZON (1904-1981), euskal politikari eta idazle aipatua. Haren obren artetik ikus *Menditarrek*, 1958, *Hazparneko anderea*, *Behorraren ostikoa*, *Eneko Bizkai eta Maria Lorka*, 1966, eta beste.

(10) JUAN AJURIAGERRA (1903-1978), inginadore eta Euzko Alderdi Jelzalearen buruzagia Franco-ren denboran eta gero ere, bera hil arte.

JOSE AGERRE (1889-1962), ikus *Euskera VII*, Bilbo, 1962, 349.

eskatu zioten eta haren orde aita Inza izendatu zuten. Jakin dudana Jose Agerre mindu omen zen, baina ez zuen horrengatik uko egin ez hizkuntzari ez herriari. 1962 an hil baitzen, arte horretan idazki asko, prosa ta olerki, argitaratu zuen euskal aldizkarietan, *Euzko Gogoia*, *Egan*, *Gure Herria* eta beste (11). Eta egun, Jose Agerrek estrainatu zuen alkaia, zuk Patxi Zabaletak hartzen duzun egun honetan, iduritzen zait Iruñeko abertzale handiari Euskaltzaindiak dion zorra ordaintzeko xedea hartu behar dugula: Tartetxo bat izanen ahal dugu, zuk eta nik, adixkide Patxi, hor gaindi sakabanatua den haren idazlana biltzeko eta argitaratzeko. Ongi legoke, lagun zenbaitek argitaratzen hasi berri duten Nafarroako euskal idazki zahar eta berrien saila osatzeko (12).

Halabiz!

(11) JON BILBAO, *Eusko Bibliographia I*, Aguerre Santesteban, Jose.

(12) J. M. SATRUSTEGI, *Euskal testu zaharrak I*, Iruñea, Euskaltzaindia, 1987.
J. M. LARREA & P. DIEZ DE ULZURRUN, *Nafarroako Euskal Idazleak I*, Pamiela Iruñea, 1987.

PATXI ZABALETA
EUSKALTZAIN BERRIA

Leitza, 1987-X-25

Patxi Aranguren,
herriko Erretorea

HOMILIA.

Senideok:

Gaurko honetan, abesti polit bat datorkit burura; Esanahi haundikoa da. Bere mezua, opa genezakeen edozein giza eta erligio balorekin, lotu leikena. Honela dio: “Egun senti hura laster altxa dadilla lur gañean. Zango azpiak larruturik ta gorputzak ezinduak, beilariak joko dute askatasunaren lurra; Itxasoan hondaturik galdutako mariñela, fortunazko ontzietan sartuko dira kaiara”.

Gaur gure ametsa eta nahia hauxe litzateke: Euskalerrria aintzakotzat hartua izango dan egun senti hura laster altxa dadilla. Euskalerrriko lur gañean, euskara dizdiratsu agertuko dan egun senti hura laster altxa dadilla.

Denok dakigu hortarako bide luzea eta latza egin beharra daukagula. Bide honetan oztopoak ugari, galtzorian batzutan, ezinduak askotan, itxasoan hondaturik galdutako mariñelaren antzera nahi baño gehiagotan. Hala ta guztiz ere ezin gindezke etsipenaren atzaparretan erori; Baizik denok alkarturik, itxaropenak eraginda jo dezagun aurrera: Argia nagusituko da, lanaren lanez iritxiko gera kaiara. Bide honetan, Euskalzaindiko zeratenok izango zerate aurrekari eta gidari, zuen irakaskintza beharrezkoa izango zaigu guztioi. Bañan baita ere, zuek herriaren laguntza, babesa eta eragiña behar-beharrezkoa izango dezute.

Horregatik goazen denok baturik, izan dezagun bihotz, leporatu dezagun bakoitzak gure erantzunbeharra eta ekin dezaiozun bideari garaipena lortu arte. Kristau geranok ezin dezakegu lan hau saietsean utzi. Hain zuzen gure sinismen bizitza, dagokigun herriaren izaeran, kulturaren, historian oñarritzen baita. Guztioi opa dizuedana hauxe da: Orain aitortzea goazen sinismena egiaztatu dezagula eguneroko ekintzetan. Hortarako Eukaristi honetan Jaunari argia eta kemena eskatuko diogu.